

Nola mantendu bizirik lagunkoitasun-programa udalerrietan?

Programarekin aurrera jarraitzeko, funtsezkoa da komunikaziorako bideak mantentzea. Talde eragilearen edo haren eta Udalaren arteko komunikazioa, eta baita beste udalerri lagunkoi batzuekin esperientziak partekatzea ere erraztu dezaketen plataformak daude.



Lagunsarea


Euskadi Lagunkoia Udalerrien Sarearen komunikazio-plataforma da, zeina abian jarri baita COVID-19ren krisialdi honetan, pertsoneri eta udalerriei lagunkoitasunean aurrera egiten jarraitzeko eta online tresna honen bidez komunikatu ahal izateko. Atxikitako udalerrietako parte-hartzaile guztiei zuzenduta dago, adineko pertsonetatik hasi eta udaletako teknikari eta profesioalaraino.

Erabiltzen hasteko, erabiltzaile gisa erregistratu behar da, eta bakoitzaren udalerriko kide egin.

Zer egin dezakezu lagunsarean?

- Zure udalerrian idatzi
- Banakako edo taldeko **bideo-deia** egin
- Zure kezka eta esperientziak **foro** batean partekatu
- Edozein erabiltzaileri **mezu pribatu bat idatzi**
- Zure probintziako edo Euskadiko **beste udalerri lagunkoi batzuekin komunikatu**

Sartu hemen



WhatsApp

Talde eragile askok eta Lagunkoia ekimenetan parte hartzen duten pertsona askok whatsapp taldeak sortu dituzte, taldekideekin komunikatzeko, esperientziak partekatzeko, hurrengo urratsen berri izateko, etab. Talde horiek oso baliagarriak dira informazioa berehala partekatzeko.

Bideo-deiak egiteko plataformak

	Partaide kopurua	Denbora muga	Sarbidea
Skype	50 arte	Mugagabea	Kontu bidez. Erabiltzaileak bilatu eta adiskidetasuna eskatu behar da. Talde bat sortzeko, dei batera pertsonak batu behar dira.
Zoom	100 arte	40 min (doako bertsioan)	Esteka edo gonbidapen bidez. Bideo-dei batean parte hartzeko ez da erabiltzailerik behar, bai programatzeko.
Jitsi	Mugagabea	Mugagabea	Ez da erabiltzailerik behar, bilerak esteka bat sortuz eta partekatuz sor daitezke
Whatsapp	8 arte	Mugagabea	APP bidez sartzten da. Kontaktua batera bideoz deitu ondoren, partaideak gehitu daitezke.

Euskadi, auzolana